

4. HE

(Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Marko Bateratuaren C2 mailarekin parekatua)

		Proba mota	Iraupena
ULERMENA	Ahozkoa: ENTZUMENA	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Egitekoa</u>: gutxienez hiru entzungai / hiru ariketa. • <u>Ezaugarriak</u> Entzungaiak iraupen eta era desberdinetakoak izango dira. Entzungaien iraupena guztira: 12-15 min. Entzungai bakoitza bi aldiz entzungo du azterketariak. Gutxienez 25 item, hiru ariketatan banatuta. <u>Ariketa motak</u>: aukera anitzeko galderak, egoerak identifikatu/loturak egin, taulak osatu, erantzun laburreko galderak, hutsuneak bete eta abar. 	40-45 min.
	Idatzia: IRAKURMENA	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Egitekoa</u>: gutxienez hiru testu / hiru ariketa. • <u>Ezaugarriak</u> Testuak luzera eta era desberdinetakoak izango dira. Testuen luzera guztira: 1.600-1.800 hitz gehienez. Gutxienez 25 item, hiru ariketatan banatuta. <u>Ariketa motak</u>: aukera anitzeko galderak, loturak egin (ideia/izenburu/paragrafoak lotu), hutsuneak bete (cloze testa, esaldiak txertatu...), testua ordenatu, berridazketak eta abar. 	60-70 min.

4. HE

(Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Marko Bateratuaren C2 mailarekin parekatua)

<p>IDAZMENA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Egitekoa</u>: luzera ertaineko testu bi idatzi (250 hitz ariketako, gutxienez). Erregistro formaleko idatziak izango dira. Helburu profesional, akademiko edo sozialekoak. Eta gai aldetik aski espezifikoak eta konplexuak izango dira. • <u>Ezaugarriak</u>: idazlanak bideratu egingo dira: landu beharreko zenbait datu, ideia edota argudio eskura izango ditu azterketariak, hala aipu gisa nola ideia-, baieztapen- edo galdera-zerrenda gisa. <ol style="list-style-type: none"> 1. <u>ariketa</u>: jarraibideak, azalpenak, iritziak edo argudioak dituen idazkia, administrazio-arlokoa. 2. <u>ariketa</u>: argudio-testu bat idatzi. Gaia aukeran emango da. 	<p>120 min.</p>
<p>MINTZAMENA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Egitekoa</u>: saio bakoitzean, bi azterketari arituko dira. Bi ariketa egin beharko dituzte. Lehenengo ariketa egiteko, alde aurretik gai bana prestatuko dute, bakoitzak bere aldetik. • <u>Ezaugarriak</u>: <p><u>0. Aurkezpena</u>: (Ez da ebaluatuko). Ariketei ekin baino lehen, azterketariek labur-labur beren burua aurkeztuko diote epaimahaiari.</p> <p><u>1. ariketa</u>: (Bakarkakoa. Gaia azaldu, iritzia eman) Aldez aurretik prestatutako gaiari buruzko argudio-testua eratu, txandaka. Batek bukatu eta bigarrena hasi aurretik, epaimahaiak entzundakoaz galdetuko dio bigarren horri. Euskarria: diskurtsoa bideratzeko, azterketariak bere lan-esparruko bi testu-aipamen (aipamen soil, aipamen+galdera) izango ditu eskura. Bien artean 200 hitz gehienez. Denbora: 5 min. garatzeko.</p> <p><u>2. ariketa</u>: (Bat-bateko elkarrizketa) Gai bera bi azterketarientzat. Ikuspuntu kontrajarri edo osagarriak, bakoitzak berea defendatzeko. Hasteko, bakoitzak bere ikuspuntua azalduko du, labur. Ondoren, elkarrizketan edota eztabaidan arituko dira. Epaimahaiak parte har dezake elkarrizketa bideratzeko edo jarduna orekatzeko. Euskarria: bi fitxa. Gai/Egoera bat + Argazki/Eskema bidez, horri buruzko iritzi kontrajarriak. Denbora: 1 min fitxa begiratzeko. 10 min bien artean eztabaida egiteko.</p> 	<p>35-40 min. (15 min. gaia prestatzeko dira)</p>